

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. APARTAMENTUAK. 2019KO URRIA

Euskal AEko apartamentu turistikoetako gaualdiak %2,5 gehitu ziren 2019ko urrian

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera harturik, %1,5eko gehikuntza izan da gaualdietan urrian

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko apartamentu turistikoetako gaualdiak 2019ko urrian 26.454 izan dira, 2018ko urrikoen aldean %2,5eko gehikuntza dena. Gipuzkoan %15,8 gehitu dira, eta Araban %6,7 jaitsi dira, nola Bizkaian ere %1,3.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako bidaiarien sarrerak 8.047 izan dira 2019ko urrian; hau da, %19,1eko igoera izan da aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta. Sarrerak %58,7 igo dira Gipuzkoan, eta %6,9 Bizkaian, baina %11,4 jaitsi dira Araban.

Gaualdiak, sarrerak eta batez besteko egonaldia Euskal Aeoko apartamentu turistikoetan. 2019ko Urria

	Gaualdiak		Sarrerak		Batez besteko egonaldia	
	2019/10	m/m-12 (%)	2019/10	m/m-12 (%)	2019/10	2018/10
EUSKAL AE	26.454	2,5	8.047	19,1	3,29	3,82
Estatukoak	18.151	6,0	5.396	23,8	3,36	3,93
Atzeritarrak	8.303	-4,4	2.651	10,4	3,13	3,61
ARABA/ÁLAVA	6.761	-6,7	891	-11,4	7,59	7,20
Estatukoak	5.786	-1,7	820	-11,4	7,05	6,36
Atzeritarrak	975	-28,2	70	-11,8	13,84	17,00
BIZKAIA	10.385	-1,3	4.078	6,9	2,55	2,76
Estatukoak	6.470	1,0	2.711	13,4	2,39	2,68
Atzeritarrak	3.915	-5,0	1.367	-3,9	2,86	2,90
GIPUZKOA	9.308	15,8	3.077	58,7	3,02	4,15
Estatukoak	5.895	21,9	1.864	79,3	3,16	4,65
Atzeritarrak	3.413	6,5	1.214	34,9	2,81	3,56

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Batez besteko egonaldiaren iraupena 3,29 egunekoa izan da urrian, 2018ko urrian izandako batez besteko 3,82 egunen azpitik. Araban iazko 7,20 egunetatik aurtengo urriko 7,59 egunetara igo da, Bizkaian 2,76 egunetatik 2,55 egunetara jaitsi da, eta Gipuzkoan ere jaitsi da batez besteko egonaldia 2018ko urriko 4,15 egunetatik aurtengo urriko 3,02 egunetara.

2019ko urriko turista-balantzea

Hotelak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak batera, 319.561 sarrera erregistratu dira 2019ko urrian, %5,7ko gehikuntza dena aurreko urteko hil beraren aldean. Bizkaian Euskal AEko sarrera guztien %46,7 kontzentratzen dira, eta sarreraren batura %3,1 gehitu da. Gipuzkoan Erkidegoko sarreraren %40,3 daude, %11,2ko gehikuntzarekin. Arabak Euskal AEko sarreraren %13,0 ditu, eta %0,1 jaitsi dira.

Gaualdiak, establezimendu turistiko hartzaileen orotarakoan, %1,5 egin dute gora. Gipuzkoan %6,3 igo dira gaualdiak, baina Araban eta Bizkaian %5,2 eta %0,6 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Gaualdiak eta sarrerak Euskal Aeko hotel, landa ostatu eta apartamentuetan. 2019ko Urria

	Gaualdiak		Sarrerak	
	2019/10	m/m-12 (%)	2019/10	m/m-12 (%)
EUSKAL AE	633.088	1,5	319.561	5,7
Araba/Álava	82.470	-5,2	41.657	-0,1
Bizkaia	289.839	-0,6	149.100	3,1
Gipuzkoa	260.779	6,3	128.803	11,2

Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62